

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

3494

AGINDUA, 2026ko uztailaren 24koa, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuarena, zeinaren bidez berariazko lehiaketa baterako merezimenduak baloratzeko batzordeko kideak izendatzen baitira, Vitoria-Gasteizko barruti judizialeko bulego judiziala, erregistro zibileko bulego orokorra eta udalerrietako eta haien elkarteetako justizia-bulegoak ezartzearen ondorioz eskakizun bereziko lanpostuak betetzeko.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2026ko ekainaren 26ko Aginduaren bidez (2026ko uztailaren 20an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua), merezimendu-lehiaketa espezifikoaren deialdia egin zen, Vitoria-Gasteizko barruti judizialeko bulego judiziala, Erregistro Zibileko bulego orokorra eta udalerriko eta haien taldeetako justizia-bulegoak ezartzearen ondorioz eskakizun bereziko lanpostuak betetzeko.

Bat etorritz agindu horren 6. artikuluan eta Justizia Administrazioko Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 50. artikuluan xedatutakoarekin, bidezkoa da eskatzaileen merezimenduak ebaluatzeko ardura izango duen Balorazio Batzordeko kideak izendatzea.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.- Pertsona hauek izendatzea Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2026ko ekainaren 26ko Aginduaren bidez iragarritako lehiaketa espezifikoko merezimenduak baloratzeko batzordeko kide:

Batzordeburua:

Iñigo Cortázar Ibañez.

1. bokala:

Jose Ignacio Tejero Yustos.

2. bokala:

José Manuel Blanco Camiño.

3. bokala:

Oldasne Bengoetxea Etxabe.

4. bokala:

Begoña Gartzia Gartzia.

Idazkaria:

Verónica Del Blanco Ruiz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 24a.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.